



UGAZTE- UHARTEKO GAZTE LOKALAREN ARAUAK

Koadrilak onartu dutena 15/03/2013

Etxe hau bai zurea eta bai gurea (Uharteko beste edozein gazterena) denez, gure filosofia ondorengoa da:

“Zuk apurtzen baduzu... zuk ordainduko duzu”, “zuk apurtzen baduzu...” “zuk konponduko duzu”

“Zuk zikintzen baduzu... Zuk garbituko duzu”

“Pasatzen bazara... onartuko duzu eta aurre egingo diozu arazoari

“zu faltatzen bazara, zu..., isilduko zara”

“ Kanporatzen bazaituzte... zu joango zara”

...

“Eta zerbait gaizki egitea uzten baduzu... gero ez zaitez kexatu”

**Araudi hau gustuko ez baduzu
edo edozeri buruz zure iritzia eman nahi baduzu
jarduerak proposatu
edo erabakietan parte hartu...**

**Hilabetean behin egiten dugun koadrilen bilerara etor
zaitez.**

“Zuk proposatzen duzu... Zuk agintzen duzu”

**“Eta zerbait aldatzea nahi baduzu... parte hartzea komeni
zaizu...”**

Oharra: koadrilak akordio batera iritsi direnez, araudi hauek lokala erabili nahi dituzuen gazte talde guztiek onartu eta sinatu behar dituzue

LOKALA ETA BEREN ZERBITZUAK ERABILI AHAL IZATEKO ADOSTUTAKO ARAUAK:

- Lokalean sartu ahal izateko, 12 urteak beteta izan behar dituzu edo bestela lehen hezkuntzako 6.mailan egon behar duzu.
- Koadrila berri guztiei azalduko zaizue araudia zein den eta gonbidatuko zaituztegu hilabetean behin antolatzen ditugun bileretara parte hartzera. Ados baldin bazaudete eta konpromisoa sinatzen baduzue, lokala erabiltzeko aukera izango duzue hortik aurrera. Gaztea izanda, eskubidea daukazu lokaleko karneta edukitzeko.
- Lokalean sartzeko ez duzue lokaleko karneta erakutsi behar, baina bai normalean itxitek dauden gelak erreserbatzeko eta bai ordenagailuak eta ping-pong-eko maila erabiltzeko.

OINARRIZKO ARAUAK BIZIKIDETZAREN JARRERARAKO:

- Errespetatu itzazu lokala erabiltzen duten beste pertsonak eta beraien eskubidea lokalaz gozatzeko orduan edo mementoan.
- Lokal hau Uhartan bizi den gazte guztiena da. Altzariak erabili itzazu zureak izango balira bezala, hala delako. Ez izorratu guztiona dena, baina ez utzi zurea dena izorratzen.
- Errespetatu itzazu besteen gauzak; bestela ez da inork gustura egongo. iii Ahaztutako mugikorra ez du zergatik galdutako mugikorra izan behar!!!
- Langileak errespetuz trata itzazu. Arauak guztion artean jarri ditugu eta langileak bakarrik saiatzeko dira ongi funtzionatzea.
- Saia saitez ez zikintzen, baina zikinduz gero, bildu ezazu.
- Baloiak kanpora, barruan arazoak besterik ez dutelako sortzen.
- Edozein arazo hitz egiten da. Egiten duzuen edozein kalte, astakeriarena egiteagatik edo ez, bulegoan esaten da irtenbideak bilatzen saia ditzagun eta arazoa gehiago ez larritzeko edo besteak kaltetuak izatera ez iristeko.
- Gazte bezala egon zaitez, eta ez haur bat bezala, honezkero ez zarelako. Zuk ongi badakizu zer egin behar den hemen eta zer ez. iiiJarri iezaiozu burua egoerari!!!

ORDENAGAILUEN GELA ETA JOLASAK ONGI ERABILTZEKO ADOSTUTAKO ARAUAK:

- Normalean gela hau irekita dago koadrila guztientzat, koadrila bakarraren erabilpenerako ez baita.
- Bulegoan ping-pong-eko palak eta jolasak eskatu ditzakezu, baina horretarako bai eman behar duzu zure karneta (Ugazteko karneta ez duten bitartean, NANA-, igerilekuko karneta, edo beste karneta bat beren izenekin eskatzen diegu), eta karneta itzuliko dizugu materiala behar den bezala itzuli eta gero. Koadrila bakoitzean pertsona bat behintzat karneta bat utzi beharko du. Koadrila bereko pertsonak ordenagailuak erabili ahal izateko, pertsona batek behintzat karneta bat utzi beharko du.
- Koadrila guztien ardura da gela hurrengoentzako ongi uztea.
- Ordenagailu bat erabili ahal izateko, bulegoan zure izena eman beharko duzu eta ugazteren karneta eman, gero emango zaizuna dena ongi utzi duzula ikustean. Garrantzitsua da ordenagailuan egoteko denbora bukatu zaizunean, langileari abisatzea zure karneta itzultzeko eta ardura beste pertsona bati pasatzeko.



- Ordenagailua egunero ordu erdiz dohan erabil dezakezu. Gero beste inork ez baldin badago eta denbora gehiago egon nahi baduzu, legedian araututa dagoena ordaindu beharko duzu (2015ean, 1,18 € dira ordu erdi gehiago egoten bazara). Salbuespenak egingo dira ikusten badugu benetan denbora gehiago erabili behar duzula.
- Ordu zehatz baterako erreserba egiten baduzu, ezin diezaiokezu beste pertsona bati eman. Bulegoan abisatzen ez baduzu eta uzten baduzu beste pertsona bat erabiltzea zure ordua denean, zure ardura izango da beste pertsona egindako erabilpena.
- Karneta itzuli gabe ordenagailu batean jartzen bazara, itzaliko zaizu. Errepikatzen bada, pertsona arduradunak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.
- Erabilera txarren aurrean, arduradunen kriterioak jarraituz (pornoa, bortitzak, xenofoboak, etab.) ordenagailua itxiko zaizue eta ezingo duzu egun horretan gehiago erabil ahal izango (lehendabiziko aldia baldin bada). Errepikatzen bada, aste betez karneta erretiratuko zaizu. 3. aldiz esaten badizugu hilabetez erretiratuko zaizu karneta eta 4. aldi bat suertatzen bada, orduan ordenagailuak erabiltzeko eskubidea galduko duzu eta ezingo duzu berriz erreserbatu. Arazorik ez egoteko, **JOLASTU AHAL DEZAKEZUEN EDO EZ ZALANTZA EDUKIZ GERO, BULEGOAN GALDETU EZAZU.**
- Beste pertsona batek ordenagailua erabiltzen ari den bitartean ordenagailua itzaltzen badiozu, ezingo dituzu ordenagailuak erabili aste betez.
- Mementuoro errespetatuko da ziberra erabiltzen ari denaren lana eta intimitatea.
- Dokumentuak inprimatu edo fotokopiak egin nahi badituzu, bulegoan abisua eman beharko duzu. Udaleko legediak araututakoa ordaindu beharko duzu (2013an, DIN A4ko orria= 0.20€; DIN A3= 0.45€).

GELAK ERRESERBATZEKO ARAUTUTAKO LEGEAK:

- Ping-pong-eko eta ordenagailuen gela kenduta, normalean irekita egongo direla, beste gela guztiak normalean itxita egongo dira, taldeek behar dutenean kondizio egokietan egon daitezten. Bakarrik irekiko dira aurretik karnetarekin erreserba egin baduzue zuen talde jardueraren bat egiteko edo ugaztek programaturiko ekintzetarako.
- Lehentasuna izango dute lokaletik programaturiko jarduerak, baina ahala eta guztiz ere, ordutegia zehazten saiatuko gara ahalik eta gehien erabiltzeko aukera egoteko.
- Koadrila edo talderen batek gelaren bat erreserbatzen dutenean, beti pertsona arduradun bat egongo da bere karneta emango duena eta azken arduraduna izango dena gelan gertatzen denarekin: dagoen materialarekin eta materialaren zainketa eta garbiketarekin.
- Lokaleko beste geletan jende asko dagoenean, orduan salbuespenak egingo ditugu eta beste koadrilak erabili ahalko dituzue gela pribatuago hauek nahiz eta ez duzuen jardueraren bat egin behar eta bakarrik bertan izan behar zareten. Egin ahal izateko eta gero ongi geratuko den ziurtatzeko, erabili behar duzuten koadrila/k eman beharko diguzue koadrila bakoitzak karneta bat. Karneta itzuliko dizuegu ikusten dugunean gela txukun eta modu egokian utzi duzuela.
- Zure izenean gelaren bat hartu duzunean, oso garrantzitsua da joaten zaren mementoan langileari abisatzea gela ixtera joan dadin edo erabiltzen jarraitu behar badute, orduan, ardura beste pertsona bati pasatzeko. Langileak begiratuko du ea dena ongi dagoen eta hala bada karneta itzuliko zaizu.
- Kalteren bat gertatzen bada eta ez baduzu abisatzen eta ez baduzu zure karneta jasotzen, zure talde guztiko pertsonak zigortuak izango dira, arazoa konpondu arte.
- Koltxoneten geletan, ezingo da jan haien gainean, ezta zanpatu oinetakoekin. Gela hauetan garbiketa ezinbestekoa da gero beste talde batek erabili beharko baitu "lurrean

etzanda egoteko". Zerbait zikindu baduzue, utzi baino lehen garbitu beharko duzue eta koltxonetak beti pilatuta utziko dira bere lekuan.

- Balkoietarako sarbidea: irekita egongo da ikusten dugun bitartean beraien erabilera egoki bat egiten duzuela. Bestela, blokeatu egingo dira eta inork ezingo du beraien erabilerarekin gozatu. Zuen segurtasunerako, ezin da eskudela pasa eta ezta ezer ere ez bota. Beheheko norbaitek gohiko norbait eragozten badu, bulegoan abisatu beharko duzue.
- Arazoren bat egongo balitz, gelatik kanporatuak izango ahal zarete eta karneta erretiratuko zaizue, eta honek suposatuko du beste egunen batean gela erreserbatzeko aukerarik ez izatea, akordio batera iritsi eta arazoa konpondu arte
- Gelen ematea dohan izango da, bertan aurrera eraman nahi den jardueran irabazi-asmorik egon ez bitartean.

TALDE MUSIKALEN ETA ELKARTEEN GELA ONGI ERABILTZEKO ARAUTUTAKO ARAUAK:

- Normalean itxita egongo da taldeek behar dutenerako modu egokian egoteko. Bakarrik irekiko da aurretik karneta emanda zuen taldekoek jardueraren bat egin behar duzutenean edo Ugaztetik programaturiko jardueretarako.
- Urtero bilera bat egingo da gela erabiltzeko interesatutako talde guztiakin entseguen eta erabileraren ordutegia zehazteko. Talde bakoitzak erabiliko duzue adostutako ordutegian.
- Gela guztiak partekatzea da; beraz, musika taldekoek ahalik eta leku gutxien erabiltzen saiatu behar duzue, ordenagailuak eta bileretako mahaietara ongi iristeko.
- Musika talde edo elkarte batekoa baldin bazarete eta gela libre dagoenean erabili nahi baduzue, lehentasuna izango du erreserbatu duen lehenengo taldeak.
- Gela utziko zaie dohan talde eta elkartei, baina kontuan izan behar duzue, udaletxeko aseguruia ez dela kargu egiten bertan uzten dituzuen instrumentuez edo materialez. Horregatik, arazorik ez edukitzeko, oso garrantzitsua da entsegua edo bilera amaitzerakoan, eta beraz, gelatik irten behar zaretenean, bulegoan abisatzea gu ahalik eta lasterren ixtera joateko.
- Instrumentu eta materialen osagaiei dagokienez: aholkatzen dugu gelan bakarrik uztea pisuzko edo bolumenezko materiala, eta balore gutxiko gauzak, hau da, egunero zaila dena leku batetik bestera trasladatzea. Uzten dituzuen gauza guztiak, jabearen izenarekin markatuta egon beharko da eta ahalik eta leku gutxien okupatzen saiatu behar duzue. Kableak eta gauza txikiak gordetzeko bulegoan kaxoi bat eskatu beharko duzue. Aurreko partean zuen izena jarriko duzue eta inork ere ez, ezingo du erabili material hori. Entsegu saio bakoitza eta gero, gazte bakoitzak beren osagai txikiak bere kaxoian gordetuko ditu.
- Apalategia erabiltzen bada, talde edo elkarte bakoitzak apaleko bere lekuan talde edo elkarteko izenarekin markatuta izan beharko du.
- Gela erabili eta gero, dena jasota eta garbi geratu beharko da, lurrian kablerik edo edozein material geratu gabe, garbiketa erraztu ahal izateko.
- Inork ezingo du ukitu berea ez den materiala, bere jabearen baimenarekin ez bada. Frogatzen bada norbaitek ez duela arau hau errespetatzen, taldeak edo elkarteak gela erabiltzeko aukera galduko du.
- Bateriako zatiren bat apurtuz gero, ordainduko da talde guztien baterien artean.
- Toki arazoa egongo balitz, talde batek 2 hilabeteko apean entsaiatzera joaten ez bada, eskatuko zaio bere materiala gelatik ateratzea.



- Ordutegiak aldatu ahalko dira implikatutako talde guztiek akordio batera iristen badira.
- Urte bat baino gehiago entsaiatu gabe daramazuten taldeak zuen gauzak hartu eta eraman behar dituzue. Abisatu egin badizuegu eta hilabete bat pasata, zuen materiala hemen jarraitzen baldin badu, beste edozein gaztek erabili ahalko du eta ezingo duzue erreklamaziorik jarri.
- Arazoren bat dagoenean, mesedez, bulegoan abisatu.
- Talde edo elkarte batek arauak betetzen ez baditu, gela erabiltzeko eskubidea galduko du.

Dokumentu honen sinadurarekin betebeharrak batzuk dituzu:

- **Betebeharrak Uharteko beste gazteekin** derrigortzen zaituztenak legedi hau betetzera. Betebeharrak horiek betetzen ez badituzu, lokala erabiltzeko (eta bertan egiten diren zerbitzuez) eta disfrutatzekeo zure eskubideak galduko dituzu.
- **Betebeharrak** Ugazte gazte lokalaren erabilerarako eta bere gozamenerako eta gazteria arlotik antolatutako jarduerentzako.

**Zure iritzia eman dezakezu,
Jarduerak proposatu edo antolatu
Eta erabakiak har ditzakezu...**

Etor zaitez hilabeteen behin guk antolatutako bileretara.